

ZBOA ALDATZEA

Indarrean dagoen ZBO bat aldatzeko eskabidearen bidez ibilgailuak kendu, ordeztu edo gehitu ahal izango dira. Azken bi kasu horietan, ibilgailu horiek ezin izango dute baimendutako taldearen konfigurazioa (abian duen hurrenkeran) aldatu. Era berean, baimenaren titularraren aldaketa ere eskatu ahal da, baldin eta horretarako behar diren betekizunak betetzen baditu. Hala ere, ezin da baimendutako ibilbidea edo taldeak abian duen hurrenkera aldatzeko eskatu.

ZBOak kudeatzeko tresna berria ekoizpenean jarri dela eta, tresna horren bidez eman diren baimenak aldatzeko eskabidea baino ez da egongo eskuragarri.

Eskabide-inprimakia eskuratzeko eta aurkezteko, instrukzio honetako IV. ataleko jarraibideei jarraitu behar zaie.

Indarrean dagoen ZBOa aldatu ahal da kasu hauetan:

- a) ZBOaren TITULARRA aldatzen bada kausa hauengatik:**
 - GABAI baterako emandako jatorrizko ZBOan sartuta dauden ibilgailu motordun guztiekin lotutako garraio-enpresako baimenaren titulartasunean aldaketaren bat dagoelako.
REATen egiaztatuko da aldaketa hori gertatu dela eta noiztik aurrera daukan indarra.
 - IB baterako emandako ZBOan agertzen den ibilgailu motordunaren erregistro-titulartasuna aldatu delako.
Erregistro-aldaketa horrek erregelamenduz izapidetuta egon behar du ibilgailuen erregistroan eta ZBOaren titular berria izango denaren izenean agertu behar du ibilgailuak.
- b) ZBO baten barruko ibilgailuekin, hau egin ahal izango da:**
 - Ibilgailuak ordeztu edo kendu.
 - Ibilgailuak gehitu, baina baimentzeko ezarrita dagoen ibilgailuen gehieneko kopurua gainditu gabe .
 - Kasu batean zein bestean, ZBOan sartzeko eskatzen diren ibilgailuek ez dute taldearen konfigurazioa (abian duen hurrenkeran) aldatu behar eta dagoeneko baimenduta dauden ezaugarri baliokideak izan behar dituzte (ardatz kopurua eta ardatzen ezaugarriak, TOGM, AETOGM, tara).

Indarrean dagoen ZBOa ezin izango da aldatu, interesdunak eskatuta, baimenaren funtsezko ezaugarriak aldatu behar badira. Horretarako, ZBO-eskabide berri bat aurkeztu beharko da. Funtsezko ezaugarriak dira hauei eragiten dietenak:

- a.** Talde mota.
- b.** Kargaren ezaugarriak, deskribapenaren edo identifikazioaren aldetik
- c.** Masak, zirkulazio-abiadura edota taldearen neurriak (abian daukan hurrenkeran), hasieran baimendutakoak baino handiagoak edo txikiagoak direnean.
- d.** Baimenaren indarraldia luzatzea, hasieran emandakoak zeukana baino handiagoa bada.
- e.** Ibilbidea.
- f.** Pasabide-murrizketak, -erreserbak edo zirkulazio-baldintzak.

Eskatzen den aldaketaren arabera, dagokion dokumentazio aurkeztu beharko da, instrukzio honetako II. eranskinean jasota dagoena.

Emanda dagoen baimen batean egindako aldaketek ez dute baimendutako taldearen baldintza teknikoetan inolako aldaketarik eragin behar.

Izapidetzean kontua hartu behar da sartu nahi den ibilgailuak baimenaren barruan dauden gainerakoekin zein garraiatzen den kargarekin bateragarria izan behar duela. Horrelakoetan, espedienteak ebatziko da eta jatorrizkoaren aginduak eta baldintzak mantenduko dira eta, hala badagokio, eguneratuko dira.

Emanda dagoen ZBOan sartu behar den/diren ibilgailuak/ek bateragarritasunaren baldintza bete ezean, baimena aldatzeko eskaera ukatuko da.

Aldatutako ZBOa indarrean egongo da jatorrizkoaren indarraldiaren amaiera-datara arte, hau da, aldatutakoa jaulkitzen denetik jatorrizko ZBOaren indarraldia amaitzen den arte.

ZBOa aldatzeko eskabidea jatorrizko baimena eman zuen lurralde-bulegoak izapidetuko du.